

COVID-19AREN ONDORIOZ HERRIKO KALEETAKO KOMERTZIOA ETA OSTALARITZA SUSPERTZEKO BONUEN KANPAINA

OINARRIAK

1. HELBURUA

Helburua da kontsumo-bonuen sistema bat sortzea, VIVE ESTERIBAR BIZI izenekoa, kontsumoa sustatzeko, Esteribarko jarduera Covid-19ren ondorioz itxita edo murriztuta egon diren saltokien jarduera berreskuratzeko.

NAFAR BASOAK Turismo Enpresa Elkarteak abian jarriko du proiektua, Esteribarko Udalarekin eta kanpainari atxikitako bazkideekin elkarlanean. Hala, covi-19ko osasun-krisiak kaltetutako merkataritza- eta zerbitzu-sektoreetan erosketak sustatu nahi da.

Bi bonu-mota daude, erosketaren zenbatekoaren arabera desberdinak. Kontsumo bonuak honela erabiliko dira:

- 5 €-ko kontsumo-bonuak 39,99 €-tik beherako erosketetan erabil daitezke.
- 10 €-ko kontsumo-bonuak 40 €-tik gorako erosketetan erabili ahal izango dira.
- Erosketa berean bonu bat baino gehiago pilatzeko aukera dago. Pertsona bat baino gehio batera erabil dezakete, betiere gastu urkilak errespetatuz. Erabilera-adibidea: 79,99 €-ra arteko erosketak eginez gero, 10 €-ko bonua eta 5 €-ko beste bat erabili ahal izango dira. Erosketa 80 €-tik gorakoa bada, 10 €-ko bi bonu erabil daitezke.

kontsumo-bonuen helburua da herritarrak Esteribarko saltoki txikira eta gainerako zerbitzuetara hurbiltzea, bertako kontsumoa sustatzeko.

2. EKINTZAREN EZAUGARRIAK

- Zubiriko turismo-informazioko gunea izango da kontsumo-bonuak jasotzeko gunea.



- Kanpaina 2020ko abuztuaren 24an hasi eta 2020ko urriaren 31n bukatuko da.
- Adinez nagusi den herritar bakoitzak (18 urte) bonu bakarra jasotzen ahalko du, bere izen-deiturak eta NANA aurkeztuta.
- Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, aldea ez da eskudirutan itzuliko.
- Kontsumo-bonuak ezin izango dira eskudirutan trukatu, ezta inola ere itzuli.
- Kontsumo-bonuak 2020ko urriaren 31 baino lehen gastatu behar dira, edo kontsumo-bonuen kopurua agortu arte.

3. SALTOKI ETA OSTALARIEK PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Edozein pertsona fisiko edo juridikok parte hartu ahal izango du kanpaina honetan, baldin eta bere enpresa-jarduera merkataritza edo zerbitzuen sektorearen barruan kokatzen bada, kalean establezimendu irekia badu ekonomia-jardueren gaineko zergan dagokion altarekin, eta honako ezaugarriak betetzen baditu:

- NAFAR BASOAK Turismo Enpresa Elkarteko bazkide izatea kanpaina hasi aurretik.
- Pertsonentzako produktu eta zerbitzuen salmenta.

a. ATXIKITAKO BAZKIDEEN BETEBEHARRAK HAUEK IZANGO DIRA

- Atxikitako enpresek kanpainako informazio-materialak jasotzeko, kokatzeko eta, hala badagokio, zabaltzeko konpromisoa hartzen dute, eta establezimenduan ondo ikusteko moduan jarriko dituzte.
- Aldi berean, atxikitako enpresetako arduradunek konpromisoa hartzen dute establezimenduan erabilitako bonuak egiazkoak direla egiaztatzeko.
- Bonua erosten duen bezeroak bonuan izen-abizenak eta NAN zenbakia jarrita dituela egiaztatu beharko du.
- Kontsumitzaileak bonua erabili ondoren, enpresak kontsumo-bonuak emango dizkio Elkartearen laguntza teknikoari, gastuaren egiaztagiraren kopiaekin batera (erosketa-tiketa), 2020ko azaroaren 31 baino lehen, banku-transferentzia bidez kobratzeko.
- Elkarteko bazkidea identifikatzeko eranskailua jartzea, ikusteko moduan, establezimenduaren identifikazioa eta kanpainaren kartela errazteko.
- Eranskailua eta kartela Turismo Informazioko Puntuan egongo dira eskuragarri.



b. BONUAK TRUKATZEKO MODUA

- Gorde jasotako jatorrizko bonua edo jatorrizkoak tiketen kopiarekin. Bonuak kontsumitzailearen datuak dituela egiaztatu beharko da.
- NAFAR BASOAK elkarteko laguntza teknikora aurkeztea.
- Aurkeztutako kontsumo-bonuei dagokien zenbatekoa saltokiari ordainduko zaio, kontsumo-bonuak aurkezterakoan saltokia emandako kontu-zenbakira transferentzia eginez.

4. KONTSUMITZAILEEI BURUZKO INFORMAZIOA

a. OINARRIAK ONARTZEA

Kontsumo-bonuak eskuratzeak dokumentu honetan jasotzen diren oinarriak onartzea dakar.

b. BONUAK ESKURATZEKO ESKUBIDEAK ETA MUGAK

- KONTSUMO BONUAK 18 urtetik gorako edonork erosi ahal izango ditu. Aldi berean, herritar bakoitzak bonu bakarra eskuratu ahal izango du.
- Interesdunek kontsumo-bonuak erosi ahal izango dituzte Esteribarko turismo informazio gunean, Orreaga etorbidean 39, kanpainak iraun bitartean eta izakinak agortu arte.
- Kontsumo-bonuak erosten dituztenek 2020ko urriaren 31 arte erabili ahal izango dituzte. Epe hori iraganik, kontsumo bonuak baliorik gabe geldituko dira.
- Bonuak kanpainari atxikitako saltokietan erabili ahal izango dira.
- Erabiltzaileak jatorrizko KONTSUMO BONUAK erabili behar dituen establezimenduan aurkeztu eta entregatu beharko ditu. Merkatariak bere izena, abizenak, identifikazioa eta harremanetarako telefono zenbakia eskatuko dizkio erabiltzaileari, bonuaren erabileraren inguruan sor daitezkeen zalantzak argitzeko.
- Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Bonuak ezin dira eskudirutan trukatu, eta ez da inola ere itzuliko balio horren zenbatekoa.
- Bonuak modu arduratsuan erosi eta erabili beharko dira, eta kontuan hartu beharko da bonurik edo ordaindutako zenbatekorik ez da itzuliko galdu, ahaztu edo ezjakintasunagatik sortu daitezkeen bestelako egoerengatik.
- Zubiriko Turismo Informazioko Puntuari kontsumo bonua erosten duten herritarrei kanpaina honetan parte hartzen duten establezimenduen zerrenda emanen zaie.

